

### altza

## «Lau Haizeta ttapa-ttapa» egitaraua

Donostiako Udaleko Auzoak eta herritarren partaidetza sailak ekitaldi bereziak antolatu ditu Lau Haizeta inguruan egunotan. Igandean, hilak 27, eta maiatzaren 4 eta 18 bitartean txangoak egingo dira «Lau Haizeta ttapa-ttapa» egitarauaren barruan. Estresari ihes egiteko bidea ere emanaz, Lau Haizetako proiektuaren nondik norakoa azalduko dira ibilaldi honetan zehar. Txangoa goizeko 10.00etan abiatuko da Lau Haizeta baserritik bertatik eta San Marcos gotorlekua, Txoritokieta, Ametzagaña, Larratxoko ibarra, Otxoki eta Arkiri bisitatuko dira.

LARRAITZ GARMENDIA (TFNOA.: 391267)



### herrera

**Peñaflorida institutuan** antzerkia izango da datorren asteazkenean, hilak 23. 12.30etatik aurrera Enrique Oncelaren «Los ladrones somos gente honrada» lana ikusi ahal izango dugu, beti ere institutuan presatutako bertsioan.

22 pertsonaien artean, Herminiak duen diruaren inguruan sortzen diren tirabirak taularatuko dizkigute

Bidebietako ikasleek.

**Kontame aldizkariak** kaleratu berri du bere bostgarren alea, urteko lehen hiru hilabetei dago-kiona. Oraingo ale honetan, donostiar gazteek lanak, Jose Luis Rebordinos Udala Kultur patronatuko zine arduradunarenak edo Harri Beltza Hiesaren aurkako Oiartzungo taldeak eginda-

### Altzatar presoak gose greban

Txalaka elkartearen eskutik altzatar preso politikoek hasitako gose grebarekin bat egin nahi izan da prentsaurreko bidez. Sei dira estatuan dauden presoak, eta hauetako hiruk beteta dituzte zigorraren hiru laurdenak. Tito Ostolaza, Fernando Arburua eta Koldo de Marcosek hemezortzigarren aldiz ekingo diote gose grebari. Hogeita bost egunez luzatuko da eta senitartekoek jasan behar dutena salatzea da helburua.

koak bildu eta gerturazten saiatu dira.

Esan beharra dago, Kontame aldizkaria irakurle guztiei zuzendua dagoela eta aldizkaria egiten parte hartu nahi izanez gero ere atek zabalik daude. Izan ere, azken egunotan kontamekoek auzoko gazteei deia zabaldu die laguntzera hurbil daitezten. Animatuz gero, dei egin 390122 telefono zenbakira.

**Maiako Sport**

KIROLAK

Segundo Izpizua 20  
Tfnoa.: 29 35 45 • DONOSTIA

**EL TURISTA**

KIROL ETA BIDAETARAKO ARTIKULUAK

LEGAZPI, 6 • Tfnoa.: 42 77 46

**Opil Okindegia**

**DONIBANE**

**D O N O S T I A**

KATALINA ERAUSO 13 - Tfnoa.: 47 08 69  
ARCCO AMARA. Euskal kortsarioen kalea z/g - Tfnoa.: 456042  
JOSE MARIA SALABERRIA 18 - Tfnoa.: 46 18 64  
MATIA KALEA 48 - Tfnoa.: 21 45 05